BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3861

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 8koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, ikus-entzunezkoen arloan sorrera, garapen eta produkzioaren aldeko diru-laguntzetarako deialdia egiten duen Aginduaren eta gidoien sorkuntzarako laguntzak emateko deialdia egiten duen Aginduaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituzten balorazio-batzordeen kideak izendatzen dituena eta Batzordeen osaera argitaratzen duena.

Ikusirik Kulturako sailburuaren 2011ko maiatzaren 25eko Agindua, ikus-entzunezkoen arloan sorrera, garapen eta produkzioaren aldeko diru-laguntzetarako deialdia egiten duena, eta 2011ko maiatzaren 5eko Agindua, gidoien sorkuntzarako laguntzak emateko deialdia egiten duena.

Kontuan izanda aipatutako lehenengo Aginduaren 8. artikuluak aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko hiru balorazio-batzorde eratuko direla eta batzorde horien kideak izendatzea eta osaeraren argitaratzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpen bidez egingo dela adierazten duela.

Kontuan izanda aipatutako bigarren Aginduaren 6. artikuluak aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko balorazio-batzorde bat eratuko dela eta batzorde horren kideak izendatzea eta osaeraren argitaratzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpen bidez egingo dela adierazten duela.

Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Balorazio-batzordeen kideak izendatzea eta batzorde horien osaera argitaratzea.

1.– Gidoien sorrera eta film laburren produkzioa delako modalitateen balorazio-batzordeak kide hauek izango ditu:

Mahaiburua: Mikel Toral López jauna (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak (lau aditu-profesional, aztertu beharko dituzten laguntza-modalitateekin zerikusia dutenak):

Patxi Azpillaga Andrea.

Octavio González Trueba jauna.

José Carlos Suárez Fernández jauna.

Gorka Luzuriaga Martínez jauna.

Idazkaria: Manu Galarraga Izaguirre jauna (Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria).

2.– Proiektuen garapena eta zinemarako fikziozko film luze, zinemarako animaziozko film luze eta sortze-dokumentalen produkzioa delako modalitateen balorazio-batzordeak berriz kide hauek izango ditu:

Mahaiburua: Mikel Toral López jauna (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak (lau aditu-profesional, aztertu beharko dituzten laguntza-modalitateekin zerikusia dutenak):

Raquel Conde Viera andrea.

Álvaro Suárez Rionegro jauna.

Alberto García Ferrer jauna.

Nina Frese andrea.

Idazkaria: Manu Galarraga Izaguirre jauna (Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria).

3.– Telebistarako film luzeen produkzioa delako modalitatearen balorazio-batzordeak berriz kide hauek izango ditu:

Mahaiburua: Mikel Toral López jauna (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak (lau aditu-profesional, aztertu beharko dituzten laguntza-modalitateekin zerikusia dutenak):

Julián Pavón Fuentes jauna.

Aintzane Pérez del Palomar andrea.

Eneko Lorente jauna.

Ana Amigo Mérida andrea.

Idazkaria: Manu Galarraga Izaguirre jauna (Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria).

Bigarrena.– Honako Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 8a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.